

# Nobela bat tesela

Peru Iparragirre

**M**iren Agur Meaberen *Hezurren erretura* (Susa, 2019) liburuko pasarte askok utzi didate korapiloa sabelean. Ezaxola uzten ez duen liburu dela esaten ausartuko naiz. Asteon aurkeztu du Meabek, eta hasieratik esan liburuko hogeita bat narrazioak nobela baten batasunarekin irakur daitezkeela. Narrazio guztiak (batzuk besteak baino gehiago, esango nuke) dira autonomoak, guztiak dute beren kasa irakurriak izateko besteako osotasuna, baina zentzu osoagoa hartzen dute, zalantzarik gabe, liburua barruan. Ez daude alferrik elkarren ondoan eta ordena horretan emanak.

Meabek orain dela sei urte argitaratutako *Kristalezko begi bat* (Susa, 2013) nobela irakur daiteke, bere horretan duen garrantzia kendu nahi izan gabe, liburu honen aurrekari gisa. Nobela hartako hainbat erreferentzia atzera topatuko ditu irakurleak

*Hezurren erretura*-n, adibidez, eta hein batean baita protagonista-narratzaile-idazlea ere, *Kristalezko begi bat* liburua azkenburuko atalean zera dioena: «[...] pertsonaia bihurtu naiz orriotan, ezinbestean: ni neu izanirik ez naiz neu erabat (nahia edo



**'Hezurren erretura'**

**Idazlea:** Miren Agur Meabe.  
**Argitaletxea:** Susa.

nahigabe)». Iruditu zait *Hezurren erretura*-n harago doala pertsonaia bilakatzeko hori, dagoneko ez dela autoimitaziozko kontraeraren ondorioa, baizik eta bilatutako zerbaite, fındutako zerbaite.

«Ba zuk ez irentsi [hezurrak], erre baino, lorezain horren moduan...» diotsu *Gratis et amore* narrazioan pertsonaia batek protagonistari. Agerikoa eta nabarmena da liburua izatearen arrazoietako bat, liburuarri zentzua ematen dion narrazioa, narrazioetan zehar berresten doana: «Aldian-aldian erretura egin beharra gertatzen zaigu, onuragarria behar lukeena kalterako izan ez dadin», kontraestetik hartutako hitzak dira. Erretura hori idazketaren bidez gauzatzen da liburu honetan. Erretura urretetik pilatu egin behar, ordea, erre nahi direnak. Horra liburua-ren mamia.

Asmo ageriko hori betetzeko bidea da literatura, eta Meabe idazle bikaina da, beste behin ere erakutsi duenez. Idaztea da erreturaren prozesua bera eta emaitza, liburu hau zu bizia eta ongaria. Haurtzaroan hasi eta gaztaroraino doa narratzaile protagonista hainbat hezur pilatzen (behin hasita zaila da baztertzen

metafora –ez hain metaforikoa–). Bizitzaren lehen zati horretako kontakizunei tartekatzen zaizkie helduarokoak, liburuaren idazketaren garaikide ere badirenak. Idazketak berak garrantzi handia hartzen du liburuaren zehar, baina ez enpo egiteko beste, narrazioek eskaintzen duten askotarikotasunak oreaktzen baitu metanarrazioa. Askotarikotasun horretan, eta denboraren eta espazioen ugaritasunak lagunduta, narrazioetako protagonista biderkatu egiten da, zabaldu, nolabait. Liburuarri amasa emateaz gainera, narrazioei urrunago heltzeko aukera ematen die, irauli gabeko harri-rik ez uzten.

Bizitza izan daitekeen edo irudi dakigukeen bezain gupidagabea da batzuetan liburu hau. Batzuetan diot beti ez esatearren. Gupidagabea bere gardentasunean, bere tragikotasunean. Niretzat, goia jotzen du *Tesela* narrazioarekin, nahiz eta gero ere badatozen atal gogoangarriak, durdizagarriak. Hain zuzen ere, teselez egindako mosaiko baten gisara irakur daiteke liburu hau: zati txiki osatuta garai bat, belaunaldi bat, bizimodu bat erakusten duen paisaia bat bezala.



**'Bertsolari'. 113. zenbakia**

**Argitaletxea:** Bertsolari aldizkaria.

**M**anu Bendalari elkarrizketa egin diote *Bertsolari* aldizkariaren udaberriko zenbakian. Beste atal batean, Aitor Sarasua eta Jon Lopategiaren heriotzak gogora ekarri dituzte. Herrialdeko txapelketak ere hizpide hartu dituzte. Horiez gain, besteak beste, Anjel Mari Peñagarikanoaren testu bat ere jaso dute aldizkarian.



**'Idazlan berreskuratuak (1989-2018)'**

**Egilea:** Amaia Iturbide.

**Argitaletxea:** Erroteta.

# Zer ote da ikara?

**HAUR ETA GAZTE LITERATURA**

Imanol Mercero

**Z**aile egiten da gaur egungo literatura sor-kuntzak garai bateko parametroekin aztertzea. Oraintxe esku artean dudana *Bidean* albumarekin gertatzen ari zait. Irakurri nuen, irakurri dut, berriz ere ari naiz, eta beran jarraitzen dut: dena errazagoa zen liburuak ondo pasatzekoak zirenean, edo ikastekoak, bestela. Eta ez diot baliorik kendu nahi obra honi, ez horixe, baina honetan jarri nau, halabeharrez.

Proposamen estetiko ikaragarria eskaintzen du, collagearen, argizari margoen eta errotuladoreen bidez. Itxura batean baldarrak baina teknikoak aratzak diren ilustrazioak, testuarekin bat eginda orrialdean, orain idazketa

mekanografiatua, orain haurra- ren idazketaren imitazioa.

Gidoiaren helburu nagusia *ikara* zer den azaltzea da, aurre-suposatuta haurrek irudimena- rekin jolasteko zaletasuna dutela, eta hartara protagonista gisa haur ekintzaile eta irudimentsu bat proposatuta.

Istoriaoa garatzeko albumetan ohikoa den egitura aurkituko dugu, ekintza bera hainbat esze- natan errepikatuta, harik eta az-



**'Bidean'**

**Idazlea:** Garazi Arrula Ruiz.  
**Ilustratzailea:** Helena Azkarragarizur Jauregi. **Argitaletxea:** Denonarte.

ken eszenan korapiloa askatzen den arte. Egitura simplea, bestalde, haur literaturan orain arte haur txikienekin erabiltzen zena eskuarki.

Protagonista (Irati) ikertzen jartzen zaigu, irakasleak *ikara* marrazteko agintzen dienean. Irudimen aberats eta bihurrikoa izanik, hitzaren fonetikari eta semantikari erreparatzen dio lehen- tik, baina hitzari neurria hartu ezinik dagoela sentituta, inguru- ko helduengana jotzen du. Heldu bakoitzak definizio poetiko-metaforiko bana eskaintzen dio, lau denera. Definizioak estetikoki oso iradokitzaile eta jostalariak dira, metaforikoki indartsuak; esaterako, amonak «ezkutatu arren, beti ateratzen den zirrara» dela esango dio. Eta lau definizio- ak osagarriak dira, puzzle baten piezak bezala. Hala, azken esze- nan, Iratik definizio abstraktuak ideia konkretuetara bihurtuko ditu, eta marrazkia egin ahal izango du.


Liburuaren izenburua *Bidean* izanik, garrantzitsuena bidean gertatzen dela iradokitzen zaigu, bilaketan bertan. Eta bidean lau heldu topatu ditu: aitona, amona, Julia periodiko saltzailea, eta In-

grid bizilagun musikaria. Bakoi- tzarekin duen harremanaz eta hark sortzen dion emozioaz aipa- mentxo bana eskaintzen digu Iratik, ez gehiago. Sarrerako irak- aslea eta amaierako aita ere hor daude, baina hauetaz ezer gutxi esaten zaigu.

Heldua naizen aldetik, *ikara* hitzarekin egindako jolas litera- rio iradokitzaile baten parte sen- titu naiz. Bitartekari naizen alde- tik, ordea, sentitu dut zalantza. Txiki-ekin erabiltzeko ezauga- rriak dituela iruditu zait, ilustra- zioak eta egitura simpleak haien- gana hurbiltzen direlako, baina, bestalde, metaforaren eta ideia abstraktuaren erabilera adin naga- siagokoekin erabiltzeko dela pentsarazten dit. Bitartekariok adi egon behar dugu halakoetan: aski frogatuta dago haurtzaroan muga lausoa dagoela erreallitate- aren eta fantasiaren artean (Olentzero etab.), baina haurren irudimena ez da ahalguztiduna, lehena frogatuta dagoen bezala, irudimena-ri dagokionez, hau- rrak ez baitira apartekoak, are gutxiago metaforak tar- tean dau- denean.

Errazagoa zen dena helburua ondo pasatzea zenean.

**B**ikerlan bildu ditu liburua- n *Iturbidek*: *Jean Etchepare- ren hausnarketa bideetatik idaz- kerarantz* eta *Euskal kontakizun tradizioalaren sustraiak* izene- koak. 1989an idatzi zuen lehena, eta 1992an bestea. Urteotako da- tuak berraztertuta eta osatu egin ditu idazle eta filologoak.



**'Zigorabeko loria'**

**Egilea:** Josean Olabe.

**Argitaletxea:** Itsasgora edizioak.

**D**uela bi mende Donostian gertatuak komiki bidez eman ditu argitara Josean Ola- bek. Frantziako tropek hiria oku- patua izan zuten garaia, eta gero soldatu espainiar, ingeles eta por- tugaldarrek eginiko sarraskia, ar- pilatzea eta erreketak kontatu du lanean, hitzez eta irudiz.